# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 3791

*EBAZPENA, 2015eko irailaren 7koa, Industriako sailburuordearena, 2015eko ekitaldirako laguntzak emateko deialdia jakinarazteko dena, enplegua sortzeko inbertsio produktiboa egingo duten enpresentzako diru-laguntzen programa arautzen duen aginduak ezarritako esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Nerbioi itsasadarraren ezkerraldea eta Oiartzualdea indartzeko (Indartu Programa).*

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko uztailaren 28ko Aginduak enplegua sortzeko inbertsio produktiboa egingo duten enpresentzako diru-laguntzen programa arautzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Nerbioi itsasadarraren ezkerraldea eta Oiartzualdea indartzeko, Indartu Programaren barruan (EHAA, 2015eko abuztuaren 31koa).

Diru-laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren 2015eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legean horretarako izendatutako aurrekontuko partidatik aterako dira.

Horrenbestez, eta aipatutako aginduaren 11. artikuluak ematen didan ahalmenaz baliatuta, 2015eko ekitaldiko laguntzen deialdia egiten da, eta horretarako beharrezkoak diren arauak ezartzen dira. Hori dela-eta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Ebazpen honen xedea da 2015eko uztailaren 28ko Aginduan aurrez ikusita dauden itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen deialdia egitea 2015eko ekitaldirako. Agindu horren bidez, enplegua sortzeko inbertsio produktiboa egingo duten enpresentzako diru-laguntzen programa arautzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Nerbioi itsasadarraren ezkerraldea eta Oiartzualdea indartzeko (Indartu Programa).

2.– Xede horretarako, 8.000.000 euroko gehieneko zenbatekoa bideratuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 2015eko Aurrekontu Orokorretan horretarako esleituriko kredituen kargura finantzatuko da.

Deialdi honi lotuta emango diren diru-laguntzen zenbateko osoa ez da izango artikulu honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, lehengoa eguneratuta sortutako diru-kopurutik gorakoa. Aipatutako zenbatekoa agortzen bada, ez da diru-laguntza gehiago emango. Hartara, agindu honen eraginkortasuna bertan behera geratuko litzateke. Horrelakorik gertatuz gero, Industriako sailburuordeak horren berri emango du ebazpen baten bidez.

2. artikulua.– Eskaerak, eta horiek aurkezteko epea eta tokia.

1.– Eskaerak eta gainerako agiri osagarriak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Industria Garatzeko Zuzendaritzara zuzendu behar dira, eta zuzendaritza horretan bertan aurkeztu daitezke (Donostia kalea 1, PK: 01010 Vitoria-Gasteiz), edo sail horretako

lurralde-bulegoetan; edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan.

2.– Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz egin behar da eskaera, eta, horrekin batera, ebazpen honen eranskinean ageri den eskabide-orria aurkeztu. Eskaera egiteko eredua, erantzukizunpeko adierazpenarena eta inbertsioen justifikazioarena ebazpen honi erantsitakoak izango dira. Eredu horiek Interneteko www.euskadi.eus helbidean jasoko dira, behera kargatzeko.

3.– Eskaerak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo eguneko 09:00etan hasiko da, eta 2015eko urriaren 15eko 12:00etan amaitu.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 7a.

Industriako sailburuordea,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.